AITA PIERRE LHANDE-REN MENDEHURRENA
1877-1977

Zalgize-n (Zuberoa), 1977 - VII - 10

Euskaltzainburuaren agurra

Zalgizeko jaun mera

Jaun erretore

Euskaltzaindiko jaun

eta Pierre Lhande aitaren gorazarre hunetara etorri zareten guztioi:

Agur bero bat eta egun on digula Jainkoak!

Aita Lhanderen oroitzapenak biltzen gaitu hemen.

Atzoko egunez, hain zuzen, bete ziren ehun urte hura sortu zela. Mende-muga hori gogoratu nahiz, ospaketa hau muntatu du Zalgizeko herriak Euskaltzaindiarekin batean.

Pierre Lhande ez zen hemen sortua, Baionan baizik. Baina hemen zituen bere sustraiak. Amañik bazuen jauregi bat Zalgizen, eta Lhande bere haurtzaroan usu etorri ohi zen hunera. Eta hemen, hemengo haurrekin jostatuz eta bere amañiren laguntzaz, Zuberoako euskara ikasi zuen. Bere euskal hiztegi ederraren aitzinaldean hitz hauk jarriko ditu gero: "Graxi Lhande, ene amañi zenaren oharmentxetan, erakatsi zeitadalakoz haurrian Jinkuaren othoizten üskaraz".

Guillaume Eppherre jaunak, berriz, Lhanderen oroitzapenez egin zuen mintzaldi gozoan hara zer esaten digun: "Aita Lhande eta Ziberoua, bat dirade goure gogo-bihotzetan. Eta haatik, ountsa kasu egin eta, ikhousten dugu Aita Lhande-en bizitzia igan dela noun-nahi salbu Ziberouan. Bena Ziberouan zutian errouak barna sarthurik, Ziberouan zian bethi bihotza, Ziberouan bere indar-hargia, Ziberouan ere egin du bere phausia".

Ederki esana. Izan ere non ez da bizi izan Aita Lhande? Nongo bazterrak ez ditu ikuskatu? Zer lan harrigarriak ez ditu egin, edo eragin? Zenbat liburu, liburuxka, artikulu eta abar ez ditu izkribatu, bai euskaraz, bai frantsesez, espainolez eta abar? Eta euskara ere, ez bakarrik Zuberoakoa, baita beste euskara muetak ere meneratu eta erabili izan ditu, hala-nola Gipuzkoakoa.

Bere bizitzean gainti Aita Lhande anitz erresuma eta nazionetan egona da: Frantzian, Espainian, Belgikan, Angleterran, Holandan, Madagaskar-en, India-n, Hegoaldeko Ameriketan...

Haren liburu eta iskribu mordoa bana-banaka aipatzen, haren prediku eta apaiz lan izigarriak xeheki kontatzen hasiko banitz, ez genuke bilkura hau bihar artio finituko.

Baina 57 urterekin eriak joa gelditzen da. Harrezgero ezindua egonen da. Beraz, hogei eta gehiago urtez eritasun luze eta astuna jasan du, etsenploa guri emanez lanean bezala baita sofrikarioan ere.

Ikusten duzuenez, anitz saiets eta alderdi ditu Aita Lhanderen bizitzeak, zein baino zein ederragoak eta guretzat irakaspenez beteak. Eni ez dagokit horiek guztiak barnatzea. Gero entzungo ditugu bi mintzaldi. Euskal Hiztegia egiten Lhanderen lankideetako bat Lafitte jauna izan zen. Eta hark eginen du hitzaldi hoietarik lehena. Aita Lhandek behiala bezala, egun Zuberoaren alkia Euskaltzaindian Jean Louis Davant jaunak dauka, eta hunek egingo du bigarrena.

Haatik hizño bat esan nahi dut, gaingiroki esana izango bada ere, Euskaltzaindian eta euskal alorrean Aita Lhanderi zor diogunaren deskargutzat eta aitormenez.

* * *

Aita Lhanderen bizitzean badira hamar urte —1911n hasi eta 1921 artio, alegia— bereziki Euskal Herriari emanak, nahiz eta hoiek ere ez osoki. Urte hoietan Hondarrabian bizi zen eta gero Hernanin Jesuisten ikasetxeetan irakasle. Orduan ere ez da beti Euskal Herrian egongo: Jesuisten hirugarren urtea egitera Belgikara joanen da, eta bai gerla handian ere parte hartu beharko du.

Gipuzkoan bizi zeneko denbora horretan ezagutu zuen Aita Lhandek Hegoaldeko Euskal Herria, eta ezagutzak eta harremanak egin zituen aldi hartako euskaltzale suharrekin: Domingo Agirre, Azkue, Urquijo, Eleizalde, Altube, Eguzkitza, Intza, "Larreko" eta abar. Gipuzkoako euskal mintzaira ikasiko du eta baita hartan idatzi ere. *Yolanda* liburua lehenik frantsesez *La Ferronerie d'Ameznabar* izenaz egina, eta gero egileak berak Gipuzkoako euskarara itzulia da.

Garai hartako anitz aldizkaritan lanak ditu Lhandek. *Eskualduna, Euskalerriaren Alde, Euzkadi, Revue Internationale des Etudes Basques, Jesusen Biotzaren Deya, Pueblo Vasco:* agerkari hauen bildumak aztertzen dituenak Aita Lhanderen izenaz topo eginen du.

Orduan sortzen da Euskaltzaindia ere, Euskararen Akademia. Hasiberri hartan 12 ziren euskaltzainak edo académiciens direlakoak. Eta hoien artean Aita Lhande izan zen bat, Zuberoaren izenean izendatua, hain zuzen.

Bai. Aita Lhande izan da lehena Zuberoaren alkia gure batasunean eduki duena; eta bigarrena, haren ondoan, Guillaume Eppherre, eta orai, hirugarrena, Jean Louis Davant jauna.

1920an Euskaltzaindiaren kazeta *Euskera* agertzen hasten da, eta hortarako ere, kazeta horren arta izateko, alegia, Aita Lhande ezartzen dute. *Euskera*-ren lehen zenbakiak Aita Lhandek prestatu eta Frantziako Tolosa hiriko inprimeria batean —Imprimerie et Librairie Edouard Privat— inprimaraziak dira, aldi hartan hango Faculté des Lettres-en euskararen irakasle zelarik.

Domingo Agirre hil zenean hitzaldi bat egin zuen Lhandek hari buruz Gipuzkoako euskeraz, eta Euskal Esnaleak argitaratu zion. Eta badu oraino beste bat ere "Gure orma zaarra", Euskal Esnale horrek berak ager arazia.

Frantziako Tolosara harat-hunatak egiten zituen Lhandek bere eskolengatik, eta halako batean, Lhanderen mintzaldi baten ondotik, handik itzultzerakoan Espainiako gobernamenduak ateak hertsi zizkion. Egoitza hura horrela finitu zen.

Geroztik Tolosan eta Parisen egonen da bereziki.

Baina euskal gaiari gagozkiola, Lhandek baditu beste bi lan, aipamen berezia merezi dutenak. Bat, Etxahuni eskainia: